

ERREPRESIOA ESTATU FRANKISTA BERRIAREN ZIMENDU (1936-1948)

Pako Sudupe Elortza
UEU, 200 or.
Bilbo, 2023

Pako Sudupe, 1959, Azkoitia (Gipuzkoa). Irakasle Ikasketetan diplomaduna, Euskal Filologian doktorea. Profesionalki, irakaskuntzan lan egin du 1979. urtetik, hainbat ikastola eta udal-euskaltegitan, baita Pasaiaiko Udaleko Euskara Zerbitzuan. XX. mendeko euskal kultura —50eko hamarkada bereziki— eta idazleak ikertu ditu (Nemesio Etxaniz, Andima Ibinagabeitia, Piarres Lafitte, Etienne Salaberry, Eusebio Osa, Jose Luis Alvarez *Txillardegi*, Telesforo Monzón, Emilio Lopez Adan). 100etik gora artikulua argitaratu ditu egunkari eta aldizkarietan (*Egan*, *Jakin*, *Hegats*, *HABE*, *Diario Vasco*, *Euskaldunon Egunkaria*, *Berria*, *Argia*) eta baita bost saiakera ere, besteak beste *Txillardegiren borroka abertzalea* (2016), *Emilio Lopez Adan: euskal iraultza libertarioaren pentsalari* (2020) edo *Inmigrazioa eta Abertzaletasuna* (2024).



**1. irudia. *Errepresioa estatu frankista
berriaren zimendu (1936-1948)* argitalpenaren azala.**

Liburuak sarrera zabal bat eta lau kapitulu ditu, 187 orrialdetan banatuta. Sudupek sarrerari garrantzi berezia eman dio (zortzi orrialde), bertan bere lanaren *leitmotiva* sakonki azalduz. Lehen kapituluan, entseguaren akuilu nagusiaren berri ematen du (Vilallongaren aitortza konplexu gabea), eta hurrengoetan, 1936-1939ko Espainiako Gerra Zibilean zehar emandako alde guztietako errepresioaren gaia aztertzen du

zehaztasunez. Azken kapituluan Errepublikaren kontrolpeko lurraldean izandako hilketen aurka jardun zuten pertsona batzuen berri ematen du, liburu honen zirkulua itxiz. Sudupek bibliografia zabala erabili du lan honetan (86 erreferentzia, hain zuzen).

Aipamen berezia merezi du Vilallonga jaunaren aitortzak. Nor izan zen Vilallonga? Espainiar aristokrata, idazle eta antzezlea izandakoa, *bon vivant* perfektuaren eredu. Alta, erreizunaren azpian, iragana ilunagoa ezkutatzen zen, hain zuzen, 1936ko Gerra Zibilean borrarorena. Aitortu behar zaio Castellbelgo 9. markesa eta Espainiako Handia izan zenari ez zela borrero arrunta izan, ordea: berak publikoki onartu baitzuen bere parte-hartzea Euskal Herrian izandako fusilamenduetan, tonu erdi lotsagabe erdi damutuaren artean erabiliz, entzulea guztiz asaldatuta utziz. Edo hori pentsa zitekeen; izan ere, haren aitorten publikoak ez zituen hautsak harrotu, eta agian hau da kezkagarriena, *playboy* baten kontzientzia zuritzea baino. Agian horregatik ireki zuen Vilallongak bere sekretuen kutxa. Edonola, *rara avis* izan zen konfesioak ez du, ikusi edota entzun duen inor, axolagabe uzten.

Sudupek argi uzten du berea ez dela gai honetan adituak direnentzako (izan ere, haiek ditu erreferentzia). Haren ekarpen nagusiak existitzen diren informazioen interpretazioa eta nahiko ezezaguna den gai bat mahai-gaineratzea (Hilketen kontrako errepublikazaleena, alegia) dira. Autoreak errepresio «urdina» (errepublikaren aurkakoen) zein errepresio «gorria» (errepublikaren aldekoena, iraultzaren aldekoena edo faxismoaren aurkakoen) ezaugarritzen ditu, haien testuingurua azaltzen du eta datuak eskaintzen ditu. Nabarmenezkoa da Eliza katolikoaz egiten duen analisia. Bi epilogoetan (ondo bereizten baititu errepresioaren gai zabala eta hilketen aurkako errepublikazaleen gai zehatzagoa) bere iritzia eskaintzen du. Galdera potoloak egiten ditu, baina ez du erantzun itxirik ematen, baizik eta eztabaida historikorako baliagarriak diren ikuspuntuak.

Ikuspegi horiek eremu ezberdinak aintzat hartzen dituztela esan dezakegu: historikoa, antropologikoa, filosofikoa, politikoa. Bere interpretazio pertsonala, betiere oinarri sendoko argudioak erabiliz, eztabaida zabalago baterako gonbita luzatzen digu, aipatzen dituen galdera sakonen bitartez, haien erantzuna etxeko lan bezala utziz irakurleari, gaian bere kabuz sakontzera bultzatuz, galdera horiek erantzuteak idazlana bera gairatzen baitu (Zergatik salbatu zituzten etsai ideologikoak? Bortxa beharrezkoa al du Iraultzak?...).

Bestalde, hilketen aurka jardun zuten errepublikazaleen historia ilunpetik ateratzen du, zenbait pertsonaiaren nondik norakoak azalduz, modu kritikoan, mitifikazio orotik urrun. Deigarria da nola hilketen kontrako errepublikazaleak aipatzen dituen arren, ez ditu hilketen aurkako matxinatuak aipatzen. Bi erantzun posible imajina ditzakegu: idazleak ez du denbora nahikorik izan atal hau ikertzeko, edo (tamalez) ez zegoen halakorik.

Liburu honek ikuspegi interesgarri bat ekartzen digu. Egilea bustitzen da, eta hori guztiz txalogarria da. Sudupek liburu fresko bat dakarkigu, erraz irakurtzen dena. Gure iraganaren gai garrantzitsu honekin lehen kontaktua izateko oso egokia da, baina luze gabe idazlan sakonagoetan murgiltzeko baldintzarekin (esaterako,

Jimeno, Mikelarena, Barruso, Aizpurua edo Egañaren ezinbesteko lanetan, Suduperen bibliografian aipatzen direnak).

Azkenik, liburuaren azala nahasgarri izan daiteke, gerra iradokitzen baitu (haur bat, hegazkin bonbaketarien itzalak) baina ez dator izenburuarekin bat (errepresioa): irudiak fusilamenduak islatu edo iradoki beharko lituzke. Esaldi batean laburbilduko bagenu guztiz gomendagarria den liburu hau «Giza faktorea guda garaian: onerako zein txarrerako» idatziko genuke.

Jose txo Otegi Arrugaeta

